

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Mikel Basabe Kortabarría** Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamendua baliatuz, interpelazioaren ondoriozko mozioa aurkezten du, herritarrek Administrazioarekin dituzten ahozko zein idatzizko harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea Ertzaintzarekiko harremanetan ere berma dadin.

### **ZIOA:**

Gauza jakina da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eskubidea dutela administrazioarekin euren aukerako hizkuntza ofizialean jarduteko. Horrela jasotzen da indarrean dagoen legerian. Eskubide hori progresibotasunez ziurtatzen dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak. Progresibotasun horren baitan, unea da Ertzaintzaren patruilekin ere hizkuntza aukeratu ahal izatekoa.

### **INTEPERLAZIOAREN ONDORIOZ MOZIOA:**

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Ertzaintzaren patruila guztietan kideetako bat gutxienez elebiduna izan dadila.

**Gasteizen, 2009ko urriaren 13an**

**Mikel Basabe Kortabarría**  
**Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea**